


# “GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO TIRA” NAZIOARTEKO 1. LEHIAKETA.



## OINARRIAK

FERNANDO BUESA BLANCO FUNDAZIOAK GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO TIRA lehiaketaren lehenengo edizioa antolatu du. Hemendik aurrera bi urterik behin egingo da lehiaketa, nazioarteko izaera izango duena.

Marrazkilariek gehienez ere hiruna lan grafiko bidali ahal izango dituzte. Lan bakoitzak gutxienez bineta bat eta gehienez hiru bineta izango ditu, eta bineta horiek nahitaez lotura izango dute Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren hogeita hamar artikuluetako batekin.

### 1. PARTE-HARTZAILEAK

Nahi duten guztiek parte hartu ahal izango dute lehiaketan; ez dago batere adin-mugarik. **Parte-hartzaile bakoitzak gehienez hiru lan grafiko aurkeztu ahal izango ditu** FERNANDO BUESA BLANCO FUNDAZIOAREN *Giza Eskubideen aldeko Tira* lehiaketara.

### 2. EDUKIAK

Batez ere lanen izaera eraikitzailea, positiboa eta kritikoa hartuko da kontuan.

### 3. MODALITATEA ETA FORMATUA

Eszenak eta pertsonaiak egileak berak sortutakoak eta sekula argitaratu gabeak izango dira. Lanak zuri-beltzean edo koloretan egin ahal izango dira. Lanak orrialde bakar batekoak izango dira. Formatua gehienez 800 x 600 pixelekoa izango da, eta bereizmena gutxienez 72 pixelekoa, hazbeteko.

#### **4. HIZKUNTZAK**

Gaztelaniaz edo euskaraz idatzitako lanak ez ezik, beste hizkuntza- eta geografia-eremuren bateko artistek egindako hitzik gabeko lanak ere onartuko dira.

#### **5. AURKEZPENA**

Lanak posta elektronikoz bidali beharko dira. Mezu elektronikoetan aipatu beharko dira egilearen izen-deiturak, jaioteguna, NANA eta harremanetarako telefonoa. Mezu elektronikoari erantsita, lan grafikoaren fitxategia bidali beharko da, JPG formatuan.

#### **6. LANAK AURKEZTEKO EPEA**

Posta elektronikoz baizik ezin izango dira bidali lanak. Hauxe da helbide elektronikoa: **fbuesadh@yahoo.es**. Lanak eta egileen datuak bidaltzeko azken eguna 2010eko abenduaren 31 izango da.

#### **7. LANAK JENDAURREAN JARTZEA**

FERNANDO BUESA BLANCO FUNDAZIOA arduratuko da aurkeztutako lanen zabalkundeaz. Lanen aurkezpen birtual edo fisikoak egiteak ez die dirurik jasotzeko eskubiderik emango irudi-egileei.

#### **8. SARIAK**

*Giza Eskubideen aldeko Tira* lehiaketan 5.000 euro emango dira guztira, honela banaturik: 1. saria, 1.500 euro; 2. saria; 1.200 euro; 3. saria, 1.000 euro; 4. saria: 800 euro; eta 5. saria: 500 euro.

#### **9. EPAIMAHAIA**

Epaimahai gaitu batek erabakiko du zein diren lanik onenak. Sariak 2011ko martxoan banatuko dira.

#### **10. LANAK JASOTZEA**

60 artistak baino gutxiagok parte hartuz gero, sari bakarra emango da, 2.000 eurokoa.

#### **11. AZKEN OHARRA**

Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek onartzea, bai eta aurkeztutako lan grafiko batzuen edo guztien zabalkunde bideratzea ere, Fundazioaren komunikazio-euskarriak baliaturik, lehiaketaren garapenari loturik betiere.